

# Diskoak

IKER BARANDIARAN

## Buenawixta eskolako punk-rockaren lekukoa



**11 y media a más tardar.**  
Desastrozombies.  
Autoeskoizpena.  
Iraupena: 11'05".  
10 euro.

NUEVO CATECISMO CATOLICO, Señor No eta Discipulos de Dionisos taldekoen anaia txikiak osatu zuten Altzako Astrozombies, Buenawixta eskolako punk-rock soinuaren lekukoa hartu zuen talde gazteenetarikoak. 1990eko hamarkada bukaeran sortu zen taldea baina bimilurtekoaren lehen urteetan taldea lurperatu zuten. Ordura arte maketa kaleratu eta hainbat bildumatan parte hartu zuten. Zombieak diren heinean bueltan datoz berriro, hainbat par-

taide aldaketekin baina inork gutxi bezala betiko esentziari eta soinuari eutsiz, orain arte izoztuta egon balira bezala. Punk-rock gitarrero eta amorratua da, Australian eta Detroiten hanka bana dituen eta, esaterako, honako taldeak gogora ekartzen dituen: La Perre-ra, NCC, Lazy Cowgirls, Vomito eta Motörhead. Iraupen ertaineko LPak CDa eta bideoa dakartza berarekin.

[www.myspace.com/desastrozombies](http://www.myspace.com/desastrozombies)

### Unai, Desastrozombies

## «Desastre samarrak garenez taldearen etapa berrirako izen aproposa iruditu zitzaigun»

Astrozombies izatetik Desastrozombies izatera pasa zarete.

Bai, Patxik taldea utzi zuen eta luzaroan geldirik egon ginen. Gerora, Aitor gehitu ahala berriro entseatzeko hasi eta izena aldatzea erabaki genuen. Eta diskoa grabatu ostean, beste gitarra jotzaile bat batu zaigu jada, zuzenekoetan gurekin aritzen dena. Manu eta biok desastre samarrak gara eta lagun batek hala deitu ziguenean etapa berri honetarako izen aproposa iruditu zitzaigun.

Gaur egun Buenawixta eskolako soinuari eusten diozuen talde bakarretakoa zarete: punk-rock gitarreroa, landua eta ostia txarrekoa.

Hala da. Etxe horretan hazi eta asko ikasi genuen eta oso harro gaude. Soinu horri eusten badiogu hala sentitzen dugulako da.



“Hamaika t´erdiak gehienez jota”. Zer gertatzen zaizue gaurdian?

Astrozombies sortu zenetik batera jotzaile kopuru hori izan dugu; hortik izenburua. Eta erdia, Aitorren-gatik, berriro sartu delako. Are gehiago, entsegu bukatzeko muga ere bada, beti luzatzen garelako. Dena dela, batera jotzaileena nekagarria izan da; ea behingoz behin betikoa den!

Diskoa zuen kabuz kalera-tu duzue. Ezinbestean edo aurrez hala erabakita?

Ez dugu aterik jo inongo diskoetxetan. Nahiago dugu lana gure kabuz egin, eta posible bada hala jarraituko dugu. Dena den, jende askok lagundu digu. 500 kopia kaleratu ditugu eta zuzenean jotzeko irrikaz geundenez ez dugu behar den promozioa eta zabalkundea egiteko denbora nahikorik hartu. Uztailean egingo ditugu lan horiek.

Zergatik aukeratu duzue Avengers taldea bertsioetarako? Zer izan da talde hori zuentzat?

Oso gustuko izan dugu beti, eta berau errebindikatzea nahi genuen, baina borobiltzeko ahotsa falta zitzaigun. Horregatik, Yolanda Riobok abesteko aukera suertatu zenean ez genuen birritan pentsatu. Emaitzarekin oso gustura gaude. ■

